

"EMOITZA" BERBEA EZ DAGO TXARTO

Okertzat artu eben Euskaldunon Egunkariko Bizkaia geigarriaren "Okerrak Zuzentzen" sailan leengo aldian berba orren erabilkerea, **emoitza** baino *emaitza* berbea ontzat artuta. Egon be, eurak oker dagozalakoa daukat eta uste dot oker esan ebena arteztu bearko leukeela, agirian jakina, irakurleak jakin daien, *emoitza* berbea bizkaieraz ondo be ondo dagoana, Bizkaiko euskerearena dalako. Bizkaiko euskerearena esan dot eta Orozkokoa da izan atan be. Alantxe dakar R.M. Azkue orain dala 100 urce idatzitako "Diccionario Vasco-Español-Francés" (1902) iztegian. Ara jo ezkerro, urrengo oneek irakurriko doguz:

EMAI: 1. (B, are), dádiva; cadeau. 2. (L), var. de eman en algunas relaciones; var. de eman dans quelques relations. 3. (B-i), fuente por donde salen los malos humores del cuerpo; exutoire, endroit par lequel sortent les humeurs mauvaises du corps.

EMAITZ: 1. (BN, G, L, S) dádiva, regalo; cadeau récompense. 2. (BN, Sal), abundante generosidad; largesse, grande générosité. 3 (BN, Sal.), censo, canon; redevande, dime.

EMOI: 1 (B), dádiva, regalo; present, cadeau. 2 (B), fuente por donde salen los malos humores del cuerpo; exutoire, endroit par ou sortent les humeurs mauvaises du corps. 3 (B-o), var. de emon en algún derivado; var. de emon dan quelque dérivé. Emoiten: dando; donnant. Emoiteko: para dar; pour donner.

EMOITZA: (B-o), dádiva; don.

EMOKARI: (B), dádiva; don.

Beste iztegi batzuetan be antzerakoa dakar, alan bada:

"Diccionario Retana de Autoridades del Euskera" (1976) iztegian, aurrean esandakoari urrengook geitu leitekioz:

EMAITZ: L Fruto. II. Entrega, donación. III. Dádiva, regalo. IV. (BN, Sal.) Abundante generosidad. V. (BN, Sal.) Censo, canon.

EMAITZE: Don, regalo (S)

EMOITZA: (B-o) Dádiva.

Aita Plazido Mujikak egindako "Diccionario Vasco-Castellano" (1981) iztegian:

EMAITZA: 1. (c) dádiva, regalo, don, presente. 2. (c) donación. 3. BN generosidad, largueza, liberalidad. 5. BN tributo, censo, impuesto, contribución, canon, pensión anual. 6. beneficio. 7. fruto, producto. 8. resultado (Aritm.) resultado de una operación.

EMOITZA: 1. B dádiva, don, regalo, presente. 2. B. donación.

Mitxelena "Orotariko Euskal Hiztegia" (1987) dalakoan:

EMAITZA/EMAITZ (G, L, BN, S)/EMAITZE (S)/ **EMOITZA** (V-oro): 1. don, regalo, dádiva. 2. fruto, resultado.

Alderdi bategik, iztegi guztiok bat datoz *emoitza* berbea ontzat artuten, euron egileak Bizkaiko eta jatortzat artu dabe, ganera.

Bestetik, berbeta modernoan sarritan berba batzuk dauken esangureari beste bat edo batzuk geituten jakoz. Esaterako, *arazo* berbeak, gaur egun, gizarte modernoan, geuretariko asko ta askorentzako "problema" esangurea dauka. Zaarentzako, ostera, Bizkaian beintzat, "ataca, zeregin" esangurea eukiten izan dau eta ez besterik. Betiko esangura ori, gaur egun, baztertuta eta askorentzako guztiz ezjakinean lotu da. Alantxe ainbat eta ainbat berba, euskalki guztietakoak.

Zergaitik mugatu bear jako arlo semantikoa *emoitza* berbeari, *emaitza/emaitz* berbeari ori berori ez bajako egin? Baturako *emaitza* berbeari arlo semantikoa zabalduetea erabagi badabe, bada, bardin-bardin egin leiteke bizkaieraz geure berbak dirala eta. Alandaze, erderazko "resultado, résultat" adierazoteko, bizkaieraz, *emoitza* berbea erabili ezkerroan, ez leuke ori inork txartzat artu bear, bestetara baino.

Iniaki Martiartu

UMEAK ONDO EZI EGIZUEZ

ETA EZ DOZUE GERO

BURU-AUSTERIK IZANGO

Pitagoras'ek

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ